



- Saihestu ilarak. Ahal dela, erabili posta elektronikoa kontsultak egiteko eta aitzakia aurkezteko.
- *Evite las colas, Utilice preferentemente el correo electrónico para consultas y presentación de excusas.*

AITZAKIEN IRIZPIDEAK

1. 69 urtetik gorakoak eta 18 urtetik beherakoak. NANa erakutsiz.
2. 65 urtetik gorakoak eta 70 urtetik beherakoak. Borondatez uko egin ahal izango diote.
3. Medikuak eta guardiako osasun-langileak. Ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
4. Lanerako aldi baterako ezintasun-egoeran egotea. Medikuaren baja eta txosten kliniko egin berriak aurkeztu beharko dituzte.
5. Desgaituak. Desgaitasunaren ziurtagiri ofiziala edo AFaren txartela aurkeztu beharko dute.
6. Haurdun dauden amak, haurdunaldiko 6 hilabetetik aurrera. Mediku-ziurtagiria eta haurdunaldiaren jarraipen-txartela aurkeztu beharko dituzte.
7. Amak edoskitze-aldian, haurrak 9 hilabete bete arte. Familia-liburuaren fotokopia edo Erregistro Zibilaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
8. Ezkontzak, bataioak eta jaunartzeak. Zeremonia egin izana eta ahaidetasun-maila egiaztatu behar izango dira.
9. HAOLoren 27.3 artikuluan xedatutakoaren arabera hautaezinak direnak.
10. Izendapena gauzatzea modu larrian zailtzen dien beste edozein arrazoi alegatu eta behar bezala egiaztatzen dutenak (arrazoi horiek behar bezala azaldu behar dira, agiri bidez justifikatuz). Hori guztia **Hauteskunde Batzorde Zentralaren apirilaren 28ko 6/2011, abenduaren 11ko 2/2014, irailaren 14ko 3/2016 eta martxoaren 14ko 1/2018 Jarraibideen arabera**, hauteskunde-mahaietako lehendakari eta bokal karguetarako eragozpen eta aitzakia justifikatuei buruz.

Izendatuek **zazpi egun naturaleko** epea dute Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari kargua onartzea eragozten dien arrazoi justifikatu eta dokumentatua alegatzeko (HAOLoren 27.3 artikulua).

AURREKO ATALETAKO DOKUMENTAZIOAZ GAIN, HONAKO AGIRI HAUEK ERANTSI BEHARKO DIRA:

- NAN, pasaporte edo gidabaimena.
- Hauteskunde Mahaiaren izendapena.
- Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak emango duen aitzakia-eskaeraren inprimakia.
- Aurkeztutako dokumentazioaren originalak, erkatzeko. Telematikoki aurkezten baduzu, geroago eskatu ahal izango zaizkizu egiaztatzeko.

CRITERIOS DE EXCUSAS

1. Mayores de 69 años y menores de 18. Mediante exhibición de DNI.
2. Mayor de 65 años y menor de 70. Podrán renunciar voluntariamente.
3. Médicos y personal sanitario de guardia. Deberán presentar certificación.
4. Estar en situación de incapacidad temporal para el trabajo. Deberán presentar baja médica e informes clínicos recientes.
5. Discapacitados. Deberán aportar certificado oficial de discapacidad o tarjeta DFA.
6. Las madres gestantes a partir de los 6 meses de embarazo. Deberán presentar certificado médico, cartilla seguimiento de embarazo.
7. Madres durante el periodo de lactancia hasta que el bebé cumpla 9 meses. Deberán presentar fotocopia de libro de familia o certificación del Registro Civil.
8. Bodas, bautizos y comuniones. Deberá acreditar la existencia de la ceremonia y grado de parentesco.
9. Los que tengan la condición de inelegibles de acuerdo con lo dispuesto en el art. 27.3 de la LOREG.
10. Los que aleguen y acrediten suficientemente cualquier otra causa que les dificulte de forma grave el desempeño de su nombramiento (explicar éstas debidamente y justificarlas documentalmente). Todo ello **conforme a las Instrucciones 6/2011 de 28 de abril, 2/2014 de 11 de diciembre, 3/2016 de 14 de septiembre y 1/2018 de 14 de marzo de la Junta Electoral Central** sobre impedimentos y excusas justificadas para los cargos de Presidente y Vocal de las Mesas electorales.

Los designados disponen de un plazo de **siete días naturales** para alegar ante la Junta Electoral de Zona causa justificada y documentada que les impida la aceptación del cargo (Art. 27.3 LOREG).

ADEMAS DE LA DOCUMENTACION DE LOS APARTADOS ANTERIORES, DEBERA ADJUNTARSE:

- DNI, pasaporte o carnet de conducir.
- Nombramiento de la Mesa Electoral.
- Impreso de solicitud de excusa que facilitará la Junta Electoral de Zona.
- Originales de la documentación aportada para su cotejo. Si lo presenta telemáticamente, se le podrán requerir posteriormente para su verificación.